


Errobotik euskal itsasbazzterera

Ibilbide guziak eskuragarri Turismo Bulegoetan ►►



MAILA
1

BIZIKI ERRAZ

ARRAIA

HALTSU



Ibilaldi horren parte handi bat oihanpe baten barna pasatzen da giro freskoan, erreka txikiak zeharkaturik. Ibilaldiaren izena iturria den lekutik eta gaur egun desagertua den etxearen izenetik dator.

La fontaine d'Arraia

Abiatzeko bidea:

Herri barnetik. Itzulgunea eta trenbidearen arteko aparkalekutik.

D 627686 - 4803619, aparkalekutik, Kanbo-Beheruntz joan eta 75 metro urrunago, bidea zeharkatu Denentzat etxera (Maison pour tous) heltzeko.

«Zuhaitz handiko txara» atsegin batera eramaiten du ibilaldiak, 2 ibilaldiren arteko zatiketa egiten duen egurrezko zubixka **1** 628438 - 4804270 batera heltzeko. Zubixka zeharkatu eta xendratik pasatu, gero eskuinaldetik hartu beharko den herri errepide **2** 628223 - 4804383 batera heltzeko. Ondotik, ezkerraldean den bidea hartu. Bide horretan segitu eta ibilaldiaren puntu gorenera iritsi. «Arraiko iturria»-n pausatzeko paradaz gozatu, xendraren beheko aldean den latsagiaren **3** 628177 - 4804536 heinean. Iratze eta zuhaitzez inguraturiko xendran segitu. «Arttoenia» **4** 627877 - 4804276 izeneko lekuaren bidegurutzera iritsi. Eskuinera hartu eta 200 metro urrunago, bidea utzi haranttoan murgiltzen den bi ezpondaren arteko baserri-bide zahar batetik

0.45

5 627744 - 4804202 pasatzeko. Erreka zeharkatu ondoren, bide mundrunatura joan eta ezkerraldera hartu herri barneruntz.


0.25




©IGN


D Haltsu,
Elizako aparkalekua

GPS : 627686 - 4803619

 0.45 oren

Seinaletika
D-tik **5**-rat 

 **3,2 km**

 **+100 m**
-100 m

Huts egin behar ez dena

- Eliza, 16. mendekoa
- Latsagia

HALTSU

«Haltzen nasaitasun»-etik dator Haltsu hitzaren jatorri etimologikoa. Erreka eta ur-bazterreko zuhaixka arrunta da haltza.

Bere arkitektura ohargarriarekin, Haltsuko eliza 1512an eraikia izan zen, Martin Uhalde jaunak galdeginik. 16. mendeko istorio horrek dio egun batez jaunaren alaba Errobin ito zela, barkuarekin Larresoroko mezara joaiten zelarik. Bere aitak Ama Birjinari zuzenduriko eliza hau eraiki omen zuen.

Ibaldiek Errobi gainaldean diren harantto berdeen deskubritzea proposatzen dute.




Xehetasun gehiagorentzat:



Kanboko Turismo Bulegoa

Herriko etxeko etorbidea – 64250 Kanbo - Tel : 05.59.29.70.25
Mail : info@cambolesbains.com - Web : www.cambolesbains.com



« Guides randos 64 » zerrenda osoa: www.rando64.fr

www.rando64.fr

oinez, bizikletez edo zaldiz, Biarno eta Euskal Herria deskubritu!

ZUEN IBILALDIA ONGI HAUTATU

Maila eta seinaleak)



Desmaila: ibilaldi bakoitzarentzat, igaite guziaz kalkulatuak dira.



Iraupena: ibilaldi bakoitzaren iraupena adierazgarri gisa erabiltzen da. Ibilaldiaren luzetasuna, desmaila eta menturazko zailtasunen arabera neurtzen da.



Ibilaldiak

Ibilaldiak zailtasunen arabera sailkatuak dira, eta gida orri bakoitzean koloreen bidez desberdinduak dira.

Ibilaldien FF-ren gomendioak segitzen ditugu.

▶ 2 oren baino guttiagoko ibilaldia
Idealki familiarekin egiteko, ongi markatuak diren bideetan.

▶ 2 oren baino guttiagoko ibilaldia
Ibiltari ohituentzat. Batzuetan desmailak edota guneko kiroitsuak.

▶ 2 oren baino guttiagoko ibilaldia
Familiarekin egin daiteke. Bideetatik, batzuetan pasabide zailagoak.

▶ 2 oren baino gehiagoko ibilaldia
Ibiltari esperientziadun eta kiroitsuentzat. Ibilaldi luze edota zailak (desmaila, pasabide gogorak).

Balizak segitu bide onean egoteko

Xendren balizak	Herri eta PR®-en xendrak	GRP®	GR®	VTT	Zaldiketa
Norabide ona					
Ezkerre hartu					
Eskuinera hartu					
Norabide txarra					

GRP®, GRP® eta PR® Ibilaldien Frantses Federazioak erregistratu markak dira.

Ibilaldi batzu kalitate eskakizunen arabera hautatu ditu Ibilaldien Frantses Federazioak, PR® labelaren pean.



Bidezidor seinaleak

Bideen GPS helbideak

Erreferentziako neurria:
WGS 84 - UTM 30T
Ibilbideen GPS bideak
telekargatu:
www.rando64.fr

GOMENDIO BALIAGARRIAK

▶ Meteo 08 92 68 02 64 edo 32 50 edo www.meteofrance.com.

Errobitik euskal itsasbazterrerako bideetan zehar ibiltzeak errespetuzko jarrera bat eskatzen du natura eta lurralde horiek biziarazten dituzten gizon eta emazteei begira. Arau batzu errespetatu behar dira.

Natura zaindu

▶ Zuen hondarkinak atxikitzeke zaku bat hartu ▶ Fauna eta flora errespetatu ▶ Balizak dituzten xendretan egon

Zuen burua babestu

▶ Material egokirik gabe ez joan
▶ Bakarrik joaiteak arriskuak ditu
▶ Erreketatik datorren ura ez edan
▶ Meteo so egin

▶ Europako urgentziako deia 112

— *Jarduerak eta jendeak errespetatu* —

▶ Hesiak berriz hetsi
▶ Xakurrarekin joaitea ez da komeni. Kasu guzietan, sokatik atxiki.
▶ Suak debekatuak dira
▶ Ibilaldien bazterretan diren jabego pribatuak errespetatu

Kasu !

Usa ehiza garaian (urritik azarorart), ehizaldietan (urte osoan zehar) eta lurra erretzean (abendutik martxorart), ibilaldi batzu saihestu behar dira. Turismo bulegoetan xehetasunak galdegin.

Egiteko gomendioak:



Gure xendrei buruzko iritziak)

Eco-veille®

Proposatzen dizkizuegun ibilaldiak arreta handiz hautatuak izan dira. Bideei dagokienez, zuen iritzi eta oharrak ongi etorriak dira atxikitzea edo mantentzea ahalbidetzeko. Zuen iritziak emaitera gonbidatzen zaituztegu Errobi Herri Elkargora deituz, 05 59 93 65 94.

Ecoveille® orria telekargatzen ahal duzue: www.rando64.com/ecoveille

Ecoveille®.behaketa orri bat ere eskuratzen ahalko duzue.

www.rando64.fr

oinez, bizikletez edo zaldiz, Biarno eta Euskal Herria deskubritu!